


EKITALDIAREN **AURRETIK/BITARTEAN/ONDOREN**



- Arabako Produktuen Gabonetako Azokaren 63. edizioak ezohiko izaera izango du, eta, araudiaren arabera, nahitaezkoa izango da **bertaratutakoen artean 1,5 m-ko distantzia** mantentzea. Erakusketari kopurua murriztuko dugu eta 10 m-ko zabalerako erdiko korridore bat utziko dugu erosketak egiteko.



- Plaza Berriko ibilbidea noranzko bakarrekoa izango da eta irteera bi izango ditu, bata Agirre Lehendakaria kaletik eta bestea Dato kaletik.



- Egibideko ingurumen-boluntarioek hartuko dute parte, mugikortasun-inkestak egiteko eta ekitaldiaren karbono-aztarna kalkulatzeko.



- (TIP) Erabil ezazu garraio jasangarria Gabonetako Azokara iristeko: bizikletaz, tranbiaz, garraio publikoz edo oinez. Ekitaldia karbonoan neutroa izan dadila nahi dugu. Parte hartu Erronka Garbian!





- Ekitaldian erabiliko den energiaren % 100 berriztagarria izango da, hornidura mota hori bermatzen duen Udalaren sare elektrikoari esker.



- Aztarna hidrikoa gutxitzen saiatuko gara, eta ia nulua izango da, ur-kontsumoaren murrizketa nabarmena izango baita.





- **Bazenekien Gabonetako Azokak ingurumenaren aldetik jasangarriak diren praktikak hartzen dituela barne?**
Erabiliko dugun gel hidroalkoholikoa lurraldean ekoizten da eta nekazaritzatik dator (erremolatxa- eta kainabera-melazak).



- Covid-19a dela-eta, maskara berrerabilgarriak emango zaizkie antolakuntzako langileei, boluntarioei eta ekitaldiko erakusketariei.



- Gabonetako Azokaren aurtengo edizioak Arabako ekoizleak eta hurbilekoak baino ez ditu gonbidatuko (0 km). Egun berezi hauetan, ez dira faltako sasoiko produktuak eta artisautza tipikoa.





- Erabilitako materialak zaintzen ditugu, hurrengo ekitaldietan ere berrerabiltzeko moduan izan daitezten. Gabonetako Azokako azpiegiturak (standak, karpak, arkuak, bannerrak, roll up-ak, eta abar) hurrengo ekitaldietan ere erabiliko dira.



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

- (TIP) Saihestu alferrikako hondakinak sortzea eta erabili gure jardueretan instalatuko diren edukiontziak. Gogoratu, papera edukiontzi urdinera bota, beira berdera, ontziak horira eta hondakin organikoak laranja.



PARTE-HARTU!

